



**SOLDATAK, PENTSIOAK,
LANGABEZIA
PRESTAZIOAK ETA
GIZARTE
AURREIKUSPENEKO
ERRESKATEAK
GIPUZKOAN**

2019



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
1.1	Datuen jatorria	2
1.2	Aztertutako kontzeptuak.....	3
1.3	Aztertutako kolektiboak	4
1.4	Aztertutako aldagaiak.....	5
2.	IKUSPEGI OROKORRA	7
3.	SOLDATAK.....	10
3.1.	Soldatak sexuaren arabera.....	14
3.2.	Soldatak nazionalitatearen arabera	17
3.3.	Soldatak adinaren arabera	20
3.4.	Soldatak LGSaren tarteen arabera	21
3.5.	Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik.....	22
3.5.1.	Izaera juridikoaren arabera.....	22
3.5.2.	Langile kopuruaren arabera.....	26
3.5.3.	Sektoreen arabera.....	27
4.	PENTSIOAK	32
4.1	Pentsioak sexuaren arabera	33
4.2.	Pentsioak adinaren arabera.....	37
4.3.	Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera.....	38
5	LANGABEZIA PRESTAZIOAK	39
5.1.	Langabezia prestazioak sexuaren arabera	40
5.2.	Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera.....	42
5.3.	Langabezia prestazioak adinaren arabera	43
5.4.	Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera.....	44
6	GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK.....	45
6.1.	Errenta moduan egindako erreskateak	45
6.1.1.	Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	46
6.1.2.	Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera .	48
6.1.3.	Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera.....	49
6.1.4.	Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	50
6.2.	Kapital moduan egindako erreskateak	52
6.2.1.	Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	53
6.2.2.	Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera..	55
6.2.3.	Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera	55
6.2.4.	Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	57
6.3.	Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak	58



1. SARRERA

Txosten honen helburua da Gipuzkoako lan-merkatuaren ikuspegi orokor bat ematea, eta aldi berean denboran zehar izan duen bilakaera ikustea.

Gainera, eta berritasun bezala, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Azterketa bi alderditik egingo da:

- Soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioak eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak jasotzen dituzten pertsonak aztertuta.
- Soldatak ordaintzen dituzten entitateak aztertuta.

1.1 Datuen jatorria

Aztertzen diren datuak 190 ereduari aitortutakoak dira: Lan etekinen, ekonomi jardueren etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak (urteko laburpena).

Aitorpen hori soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioa eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak ordaintzen dituzten erakunde guztiek aurkezten dute, edozein izanik ere bere nortasuna, bere jarduera, tamaina edo izaera publiko/pribatua.

Aitortzaile bakoitzak errenten hartzaileen zerrenda bat aurkezten du: ordaindutako zenbatekoa, kontzeptua... Zerrenda horietan PFEZri lotutako errentak lortzen dituzten pertsona guztiak agertzen dira, nahiz eta errentak salbuetsiak egon, zenbateko minimora heltzen ez delako atxikipenik ez egin...

Jasotzen diren datuetan agertzen ez direnak etxeetan lan egiten dutenen soldatak dira, eta hau horrela da ordaintzailea ez delako enpresaria eta 190 ereduak ez duelako aurkezten.

Beraz, informazioa osoa eta zehatza da. Eta horren bidez, bai Gipuzkoako biztanleek jasotako eta bai Gipuzkoako enpresek sortutako lan errenten kuantifikazioa eta deskribapena lortzen da.

Dena den, bai oro har eta gehienbat batez bestekoak aztertzerakoan, kontuan izan behar da, nahasita agertzen direla urte osoa lan egiten dutenen datuak eta aldi baterako kontratuak dituztenen datuak, lanaldi osoa egiten dutenena eta lanaldi partzialekoak...

1.2 Aztertutako kontzeptuak

- **Laneko errentak**

190 ereduan A eta L15 gakoarekin datozen errentak.

- **Pentsioak**

190 ereduan B gakoa (BGAEetatik, pentsio planetatik eta gainerako aurreikuspen sistematik jasotako prestazioei dagokien azpigakoa izan ezik), eta L06 eta L07 gakoarekin datozen errentak. Hau da, Gizarte Segurantzatik, haren ordezkotatik eta Klase Pasiboaren erregimenetatik jasotako pentsio publikoak.

- **Langabezia prestazioak**

190 ereduan C eta L13 gakoarekin datozen errentak.

- **Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak**

190 ereduan B02 eta L18 gakoak (2014tik aurrera B03, B20, B21, B22, B23, B24, B25 eta B26 gakoak) dutenak: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate, Pentsio Plan, Mutualitate eta antzeko sistemetatik jasotako erreskateen zenbatekoak.

Hemen bi eratako erreskateak aztertuko dira:

- Errenta moduan jasotakoak.
- Kapital moduan jasotakoak.

Azterketatik kanpo geratzen dira 190 ereduan agertzen diren beste errenta mota batzuk; esaterako, jarduera ekonomikoko etekinak (nekazaritza edo profesionalak), sariak, irudi-eskubideen lagapena, kontseilari eta administraritza dietak.



1.3 Aztertutako kolektiboak

- **Jasotzaileak**

Jasotzailearen ikuspegitik bakarrik kontuan hartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan helbideratuak dauden pertsonen datuak, nahiz eta ordainketa beste lurralde batean dagoen ordaintzaile batek egina izan.

190 ereduaren berezitasunetako bat aniztasuna da: gerta daiteke pertsona batek urte batean zehar bi ordaintzaile edo gehiagoren ordainketak jasotzea, edota errenta mota desberdinak jasotzea (laneko errenta eta langabezia prestazioa; laneko errenta eta pentsioa...).

Orduan, hiru kolektibo desberdintzen dira:

1. **Soldatapekoak:** laneko errentak lortzen dituztenak. Zer gertatzen da pertsona batek ordaintzaile bat baino gehiagotik laneko errentak jasotzen dituenean? Kasu horietan, pertsona hori proportzionalki zenbatuko da entitate bakoitzean soldatapeko bezala: entitate bakoitzak ordaindutakoa, zati laneko errenta osoak. Esaterako: pertsona batek 40.000 euro jasotzen ditu urtean: 10.000 euro A enpresatik eta 30.000 euro B enpresatik. Oro har, soldatapeko 1 bezala kontabilizatuko da; baina adibidez jardueraren arabera sailkatzerakoan A enpresan 0,25 soldatapeko bezala hartuko da ($10.000/40.000$), eta B enpresan 0,75 bezala ($30.000 / 40.000$).
2. **Langabetuak:** langabezia-prestazioak jasotzen dituztenak.
3. **Pentsiodunak:** pentsioak jasotzen dituztenak, B02 gakoeko errentak jasotzen dituztenak izan ezik (2014tik aurrera B03, B20, B21, B22, B23, B24, B25 eta B26 gakoak).

- **Ordaintzaileak**

Laneko errentei dagokionez, azterketa beste ikuspegi batetik ere egiten da: ordaintzailearen ikuspegitik. Kasu horretan kontuan hartzen dira Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileek ordaintzen dituzten soldata guztiak, nahiz eta jasotzaileak beste lurralde batean helbideratuak egon.



1.4 Aztertutako aldagaiak

Txostenean zehar aztertuko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Jasotzaile kopurua
- Errentak guztira
- Batez besteko errenta
- Ordaintzaile kopurua

Sailkapenak

Datuak azaltzerakoan zenbait sailkapen erabiliko dira:

- Jasotzailearen adina
- Jasotzailearen sexua
- Jasotzailearen nazionalitatea
- Errentaren tartea
- Ordaintzailearen jarduera sektorea
- Ordaintzailearen izaera juridikoa
- Ordaintzailearen tamaina (langile kopuruaren arabera)



		Aldagaiak		Sailkapenak	
KOLEKTIBOAK	ENPLEGUA	JASOTZAILEAK	Soldatapeko kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Adina Sexua Errenta tartea Nazionalitatea Udala Eskualdea	
		ORDAINTZAILEAK	Ordaintzaile kopurua Jasotzaile kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Izaera juridikoa Jarduera sektorea Tamaina	
	LANGABEZIA-PRESTAZIOA	Langabetu kopurua Prestazioaren batez bestekoa Prestazioa guztira	Sexua Adina Prestazioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea		
	PENTSIOAK	PENTSIO PUBLIKOAK; MUTUALITATEAK ETA LAGUN-ARO INSS ORDEZKATZEN DUTENEAN	Pentsiodun kopurua Pentsioaren batez bestekoa Pentsioa guztira	Sexua Adina Pentsioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea	
	BGAE - PP – MUTUALITATE ETA ANTZEKO SISTEMEN ERRESKATEAK: ERRENTA MODUAN ETA KAPITAL MODUAN	Pertsona kopurua Erreskateen zenbatekoa Erreskateen batez bestekoa	Sexua Adina Erreskatearen tartea Eskualdea		

2. IKUSPEGI OROKORRA


2019. urtean 507.797 gipuzkoarrek jaso dituzte soldatak, pentsioak edota langabezia prestazioak. Guztira jasotako zenbatekoa 12.249 milioi euro dira, hau da, 24.123 euro batez beste.

- Taularen lehenengo zutabeen 2019an zehar soldatak bakarrik jaso dituztenak azaltzen dira. Gutxi gora behera erdia dira (278.154 pertsona; %54,8).
- Pentsioak bakarrik (2. zutabea) 167.283 pertsonak jaso dituzte, guztien %32,9.
- 3. zutabeen langabezi prestazioak bakarrik jaso dituztenak aztertzen dira: 8.862 pertsonak (guztien %1,8).
- Lana egiteagatik soldata eta sistema publikoko pentsioa 15.777 pertsonak (guztien %3,1) jaso dute (4. zutabea).
- 5. zutabeen laneko soldata eta langabeziako prestazioa jaso dituztenak daude: 35.703 pertsona (guztien %7,0).
- Pentsioa eta langabezia prestazioa 1.326 pertsonak jaso dute (6. zutabea).
- Eta hiru etekin motak (lana, pentsioa eta langabezia prestazioa) 692 pertsonak jaso dute (7. zutabea).

Taula 1. 2019ko datuen ikuspegi orokorra

		Soldatapekoak (1)	Pentsiodunak (2)	Langabetuak (3)	Soldatapekoak eta pentsiodunak (4)	Soldatapekoak eta langabetuak (5)	Pentsiodunak eta langabetuak (6)	Soldatapekoak, pentsiodunak eta langabetuak (7)	GUZTIRA
SOLDATAK	Personak	278.154			15.777	35.703		692	330.326
	Zenbatekoa guztira (€)	7.772.932.938			261.024.717	538.068.373		7.529.565	8.579.555.593
	Batez bestekoa (€)	27.945			16.545	15.071		10.881	25.973
PENTSIOK	Personak		167.283		15.777		1.326	692	185.078
	Zenbatekoa guztira (€)		3.193.098.165		296.736.986		16.286.955	7.171.555	3.513.293.661
	Batez bestekoa (€)		19.088		18.808		12.283	10.364	18.983
LANGABEZIA PRESTAZIOAK	Personak			8.862		35.703	1.326	692	46.583
	Zenbatekoa guztira (€)			44.107.784		105.297.531	4.965.115	2.154.551	156.524.981
	Batez bestekoa (€)			4.977		2.949	3.744	3.114	3.360
GUZTIRA	Personak	278.154	167.283	8.862	15.777	35.703	1.326	692	507.797
	Zenbatekoa guztira (€)	7.772.932.938	3.193.098.165	44.107.784	557.761.702	643.365.904	21.252.070	16.855.672	12.249.374.235
	Batez bestekoa (€)	27.945	19.088	4.977	35.353	18.020	16.027	24.358	24.123

Grafikoa 1 – Jasotzaileen banaketa etekin motaren arabera eta talde esanguratsuenen batez bestekoa




2019an soldatak bakarrik jaso zituzten pertsonen batez besteko soldata 27.945 euroko izan zen; pentsioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko pentsioa 19.088 eurokoa izan zen; eta langabezi prestazioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko prestazioa 4.977 eurokoa.

Jasotako zenbatekoari dagokionez, 12.249 milioi eurotik, gehiengo nagusia (8.580 milioi euro; %70,0) soldatak dira; pentsioak guztiaren %28,7


dira (3.513 milioi euro), eta langabezia prestazioak 157 milioi euro (guztia %1,3).

Grafikoa 2 – Etekinen banaketa etekin motaren arabera



Etekin motaren arabera, batez bestekori handiena laneko etekinek dute, 25.973 euro; pentsioen batez bestekoa 18.983 eurokoa da; eta langabezia prestazioena 3.360 eurokoa.

Grafikoa 3 – Etekinen mota bakoitzaren batez bestekoa



3. SOLDATAK

2019. urtean laneko soldatak 330.326 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %1,8 gehiagok. Zenbateko osoa, %4,1 igo da baita ere 2018arekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 25.973 euro izan dira.

Taula 2. Soldaten bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2010	297.507		7.222.796.657		24.278	
2011	295.411	-0,7	7.284.565.382	0,9	24.659	1,6
2012	299.629	1,4	7.218.677.176	-0,9	24.092	-2,3
2013	292.767	-2,3	7.122.472.681	-1,3	24.328	1,0
2014	295.515	0,9	7.173.282.038	0,7	24.274	-0,2
2015	304.835	3,2	7.404.618.191	3,2	24.291	0,1
2016	310.811	2,0	7.610.321.945	2,8	24.485	0,8
2017	319.192	2,7	7.790.344.232	2,4	24.406	-0,3
2018	324.421	1,6	8.237.740.979	5,7	25.392	4,0
2019	330.326	1,8	8.579.555.593	4,1	25.973	2,3
2010/2019		11,0		18,8		7,0

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan soldatak jaso dituzten pertsona kopurua %11,0 igo da. Punturik altuena 2019an eman da: 330.326 soldatapeko.

Jasotako soldatei dagokionez, %18,8 igo dira 2010. urtetik. Daturik handiena 2019. urtean lortu zen (8.580 milioi euro).

Pertsonako batez besteko soldata %7,0 igo da hamar urte hauetan: 24.278 eurotatik 25.973 eurotara. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %12,3 igo dela.

Mediana edo erdiko balioa aztertuta, batez besteko soldataren antzeko bilakaera izan duela ikusi daiteke; baina 2010-2019 epealdian medianak metatutako igoera batez bestekoa baino 2,6 puntu txikiagoa izan da. Mediana %4,4 igo da eta batez bestekoa %7,0 igo. Medianaren igoera txikiago horrek erakusten du soldata baxuak, soldata altuak baina gutxiago hazi direla.



Taula 3. Medianaren bilakaera (eurotan)

	Zenbatekoa	Bar. %
2010	21.904	
2011	22.322	1,9
2012	21.934	-1,7
2013	21.867	-0,3
2014	21.805	-0,3
2015	21.716	-0,4
2016	21.745	0,1
2017	21.478	-1,2
2018	22.339	4,0
2019	22.873	2,4
2010/2019		4,4

Soldatak nola banatzen diren ezagutzeko, bere banaketa aztertzen da dezilen arabera. Horiek osatzen dira, soldata jasotzaile guztiak soldata txikienetik handienara ordenatuta, eta pertsona kopuru berdineko taldeak osatuz. Horrela, talde edo dezila bakoitzak soldata jasotzen duten pertsona kopuru osoaren %10a suposatzen du: lehenengo dezilan (D1) sartzen dira soldatarik txikienak jasotzen duten %10a, eta azken dezila (D10) osatuta dago soldatarik handienak jasotzen duten pertsonen %10arekin.

Taula 4. Soldaten banaketa portzentuala dezilen arabera

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
D1	0,7	0,6	0,6	0,5	0,5	0,4	0,4	0,4	0,5	0,5
D2	2,6	2,5	2,5	2,3	2,2	2,1	2,1	2,1	2,3	2,3
D3	4,7	4,6	4,6	4,4	4,3	4,2	4,2	4,2	4,4	4,4
D4	6,7	6,7	6,6	6,5	6,3	6,2	6,2	6,2	6,3	6,3
D5	8,3	8,4	8,3	8,2	8,2	8,1	8,0	8,0	8,0	8,0
D6	9,9	9,9	9,9	9,8	9,9	9,8	9,7	9,7	9,6	9,6
D7	11,6	11,6	11,7	11,7	11,7	11,8	11,7	11,6	11,5	11,5
D8	13,7	13,7	13,7	13,9	14,0	14,0	14,0	13,9	13,7	13,7
D9	16,3	16,3	16,3	16,6	16,7	16,8	16,8	16,8	16,5	16,6
D10	25,6	25,7	25,8	26,0	26,3	26,6	26,8	27,0	27,1	27,1

Horrela, 2019. urtean soldatarik baxuenak jasotzen dituztenen %10aren soldatak (D1 dezila), gipuzkoar guztiak jasotako soldaten %0,5 metatu dute. Aldiz, soldatarik altuenak jaso dituztenek (D10 dezila), soldata osoen %27,1a metatu dute.

2010-2019 epealdian zazpi lehenengo taldeak, hau da, soldata txikienak jasotzen dituztenak, jaitsi egiten dira portzentualki eta bi azkeneko taldeak igo. Gainera gehien jaisten den taldea soldata txikienak dituztenena da (D1). Aldiz, gehiena igotzen den dezila D10 da.



Taula 5. Bariazio portzentuala dezilen arabera

	2010/2019
D1	-28,6
D2	-11,5
D3	-6,4
D4	-6,0
D5	-3,6
D6	-3,0
D7	-0,9
D8	0,0
D9	1,8
D10	5,9

Medianari dagokionez, 2010-2019 epealdian bi lehenengo dezilen mediana jaitsi egiten da, eta, aldiz, zortzi azkeneko dezilena igo egiten da. Gainera, gehien jaisten dena soldata txikiak dituztenena da (D1). Aldiz, D9 dezilaren mediana da gehien igotzen dena. 2019. urtean, 2018. urtearekin alderatuta, dezila guztietan igotzen da mediana.

Taula 6. Medianaren balioa dezilen arabera

	2010	2015	2016	2017	2018	2019
D1	1.463	802	851	987	1.083	1.103
D2	6.083	5.073	5.182	5.215	5.779	5.917
D3	11.375	10.154	10.377	10.304	11.141	11.578
D4	16.291	15.178	15.270	15.076	16.060	16.476
D5	20.144	19.687	19.690	19.417	20.276	20.795
D6	23.800	23.841	23.844	23.574	24.451	25.019
D7	27.953	28.532	28.569	28.323	29.204	29.819
D8	32.943	33.983	34.138	33.900	34.802	35.531
D9	39.138	40.636	40.912	40.980	41.811	42.784
D10	53.234	54.892	55.430	55.311	56.664	58.068

Taula 7. Medianaren bariazio portzentuala dezilen arabera

	2010/2019
D1	-24,6
D2	-2,7
D3	1,8
D4	1,1
D5	3,2
D6	5,1
D7	6,7
D8	7,9
D9	9,3
D10	9,1



Soldata banaketaren berdintasuna/ezberdintasuna aztertzeko beste modu bat, dezilen arteko ratioen bidez da.

- Soldaten D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko dezilan (soldata txikiak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2019an 54,4ko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %10ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikiaren populazioaren %10ak jasotzen dituztenak baino 54,4 aldiz handiagoak direla.
- Soldaten S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2019an 15,6ko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %20ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikiaren populazioaren %20ak jasotzen dituztenak baino 15,6 aldiz handiagoak direla.

Taula 8. Dezilen arteko ratioak (%)

	2010	2019	bariazioa 2010/2019
Soldatak D10/D1	38,4	54,4	41,7
Soldatak S80/S20	12,9	15,6	20,9
Mediana D10/D1	36,4	52,6	44,5
Mediana S80/S20	11,5	14,5	26,1

- Medianaren D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko dezilan (soldata txikiak) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2019an 52,6ko ratio batek esan nahi du, D10 dezilaren (soldata handieneko populazioaren %10a) mediana, D1 dezilaren (soldata txikiaren populazioaren %10a) mediana baino 52,6 aldiz handiagoa dela.
- Medianaren S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen soldataren medianarekin.

2019an 14,5eko ratio batek esan nahi du, goiko dezilen (soldata handieneko populazioaren %20a) mediana, beheko dezilen (soldata txikieneko populazioaren %20a) mediana baino 14,5 aldiz handiago dela.


2010-2019 epealdian ratio guztiak modu garrantzitsuan handitu ziren. D10/D1 erlazioaren kasuan, soldaten ratioa %41,7 handitu zen eta medianarena %44,5. S80/S20 erlazioan, igoera %20,9 eta %26,1 izan zen, hurrenez hurren.

3.1. Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2019. urteko 330.326 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 10.001aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,0ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %46,6 emakumezkoak dira, eta beste %53,4 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %39,8 jasotzen dute, eta gizonezkoek %60,2.

Grafikoa 4 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2019



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 22.611 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 29.815 eurokoa.

Grafikoa 5 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2019



Azkeneko hamar urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2010ean 129.579 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2019an kopuru hori 149.143ra igo da, hau da, %15,1 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 159.900tik 171.182ra pasa dira (+%7,1). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko kopurua 2013an bakarrik jaitsi zen; aldiz, krisia hasi zenetik gizonezko soldatapeko kopurua etengabe jaitsi da 2013. urte arte. 2014. urtetik aurrera emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua igo egin da (2019an %2,1 igo da emakumezkoen kopurua eta %0,9 gizonezkoena).

Taula 9. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	129.579		159.900	
2011	129.939	0,3	157.491	-1,5
2012	130.619	0,5	157.298	-0,1
2013	128.699	-1,5	152.262	-3,2
2014	131.354	2,1	153.948	1,1
2015	135.184	2,9	156.927	1,9
2016	139.823	3,4	161.284	2,8
2017	143.916	2,9	165.180	2,4
2018	146.122	1,5	169.621	2,7
2019	149.143	2,1	171.182	0,9
2010/2019		15,1		7,1

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 3,0 puntu igo da azken hamar urteetan: 2010an soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %43,6 zen emakumezkoa, eta 2019an, lehen aipatutako %46,6ra iritsi dira. Ondorioz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %56,4 izatetik %53,4 izatera pasa dira.

Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2010ean emakumezkoek jasotako soldatak 2.699 milioi euro izan ziren bitartean, 2019an 3.372 milioi euro izan dira; hau da, %24,9 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2012 eta 2013 urteetan izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

Taula 10. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	2.699		4.402	
2011	2.731	1,2	4.431	0,7
2012	2.706	-0,9	4.346	-1,9
2013	2.701	-0,2	4.239	-2,5
2014	2.738	1,4	4.294	1,3
2015	2.841	3,8	4.406	2,6
2016	2.939	3,4	4.547	3,2
2017	3.023	2,9	4.634	1,9
2018	3.185	5,4	4.961	7,1
2019	3.372	5,9	5.104	2,9
2010/2019		24,9		16,0

Gizonezkoak jasotako soldatak %16,0 igo dira hamar urte hauetan: 4.402 milioi eurotik 5.104 eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen soldaten pisua 1,8 puntu igo da hamar urte hauetan: 2010eko 38,0tik lehen aipatutako %39,8ra. Eta gizonezkoena %62,0tik %60,2ra pasa da.

Taula 11. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)


	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	20.829		27.527	
2011	21.014	0,9	28.138	2,2
2012	20.713	-1,4	27.627	-1,8
2013	20.990	1,3	27.840	0,8
2014	20.846	-0,7	27.894	0,2
2015	21.018	0,8	28.076	0,7
2016	21.019	0,0	28.194	0,4
2017	21.007	-0,1	28.052	-0,5
2018	21.798	3,8	29.247	4,3
2019	22.611	3,7	29.815	1,9
2010/2019		8,6		8,3

2010etik 2019ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %8,6 igo da: 20.829 eurotik 22.611 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %8,3 igo da: 27.527 eurotik 29.815 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamar urte hauetan:

- 2010. urtean 6.698 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %24,3 txikiagoa zela.
- 2010–2019 epealdian, arrailak gora eta behera egin du, azken urtean behera egiteko. Azken urte honetan 7.205 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handia egon 2010eko zenbatekoarekin (6.698 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila 0,1 puntu jaitsi da: 2010eko %24,3tik 2019ko %24,2ra.

Grafikoa 6– Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)



3.2. Soldatak nazionalitatearen arabera

Nazionalitatea definitzen da herritar bat eta Estatu baten arteko lege harreman berezi gisa; horrela, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo Y atzerritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Horrela, Gipuzkoan bizi diren soldata jasotzailearen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2019an %92,5 dira bertakoak eta beste %7,5 atzerritarrak.

Taula 12. Soldatapekoen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2010	281.744		15.763	
2011	279.358	-0,8	16.053	1,8
2012	283.325	1,4	16.304	1,6
2013	277.800	-2,0	14.967	-8,2
2014	280.398	0,9	15.117	1,0
2015	289.043	3,1	15.792	4,5
2016	293.351	1,5	17.460	10,6
2017	299.545	2,1	19.647	12,5
2018	301.822	0,8	22.599	15,0
2019	305.606	1,3	24.720	9,4
2010/2019		8,5		56,8

Dena den azken hamar urteetan atzerritarren partaidetza era garrantzitsuan handitu da: 2010ean 15.763 pertsona ziren atzerritarrak, eta 2019an 24.720 dira; hau da, %56,8 gehiago. Krisiaren eraginez kopurua mantendu egin da, eta 2013 jaitsiera nabarmena eman da. 2014. urtean goranzko joera hasi da eta 2019an epealdiko kopuru handiena jaso du.

Atzerritarrek jasotako soldatak ere nabarmen handitu dira azken hamar urteetan: 2010ean 206 milioi euro jaso zituzten, eta 2019an, berriz, 361 milioi euro (+%75,4). Krisiaren ondorioz, eta 2011tik aurrera jaisten hasten da. 2014. urtean goranzko joera hasi da eta 2019an epealdiko kopuru handiena jaso du.

**Taula 13. Soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera
(milioi eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2010	7.017		206	
2011	7.070	0,8	215	4,4
2012	7.008	-0,9	211	-1,9
2013	6.931	-1,1	192	-9,1
2014	6.978	0,7	195	1,7
2015	7.200	3,2	205	5,0
2016	7.388	2,6	222	8,4
2017	7.540	2,0	251	13,0
2018	7.932	5,2	306	21,9
2019	8.218	3,6	361	18,1
2010/2019		17,1		75,4

Dena den, atzerritarrek izan duten bilakaera ikusgarri horrek ez du eragin garbirik jasotako batez besteko soldatan: aztertutako hamar urteetan


%11,9 igo da (13.062 eurotik 14.612 eurora), bertakoen batez besteko soldata %8,0 igo den bitartean (24.905 eurotik 26.892 eurora).

Bi taldeen arteko arraila 2019. urtean 12.280 eurokoa izan da; horrek esan nahi du atzerritarren soldata bertakoena baino %45,7 txikiagoa dela. Arraila hori azken bederatzi urteetan ia-ia etengabe handitu egin da, eta azkeneko urtean behera egin du.

Taula 14. Batez besteko soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2010	24.905		13.062	
2011	25.306	1,6	13.394	2,5
2012	24.734	-2,3	12.936	-3,4
2013	24.949	0,9	12.809	-1,0
2014	24.887	-0,2	12.897	0,7
2015	24.910	0,1	12.962	0,5
2016	25.186	1,1	12.710	-1,9
2017	25.170	-0,1	12.766	0,4
2018	26.280	4,4	13.531	6,0
2019	26.892	2,3	14.612	8,0
2010/2019		8,0		11,9

Grafikoa 7– Nazionalitateen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)



3.3. Soldatak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaien bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2019. urteko 330.326 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 13.192ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %4,0ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Normala den bezala, jasotzaile kopuruaren gehiengoak (%71,0) 26-55 urte tartean kokatzen da. Oso gutxi dira 18 urtetik beherakoak (%0,3), eta 19-25 tartean daudenak kopuru osoaren %8,4 dira (26.694 pertsona). 56 eta 65 urte bitartean 58.682 soldatapeko daude (guztien %18,5); eta 65 urtetik gora 5.892 pertsona daude (%1,9).

Taula 15. Soldatak adin tarteen arabera - 2019

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<18	858	0,3	3.613.922	0,0	4.212
19-25	26.694	8,4	225.863.891	2,7	8.461
26-35	54.268	17,1	1.219.517.386	14,5	22.472
36-45	83.539	26,3	2.340.101.791	27,7	28.012
46-55	87.201	27,5	2.703.428.956	32,0	31.002
56-65	58.682	18,5	1.842.453.534	21,8	31.397
> 65	5.892	1,9	103.316.550	1,2	17.535
Guztira	317.134	100,00	8.438.296.030	100,0	26.608

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: %74,2a metatzen dute 26 eta 55 urte bitartekoak; gazteenak (25 urtetik beherakoak) soldata osoen %2,7 jasotzen dute, eta zaharrenak (55 urtetik gorakoak) %23,0a.

Dena den, adierazgarria da nola handitzen den batez besteko soldata adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, zenbatekorik altuena 56-65 urteko soldatapekoak lortzen dute: 31.397 euro.

Tarteen arabera bi salto esanguratsu ikusten dira: 19-25 tartetik 26-35 tartera batez bestekoa 14.011 eurotan handitzen da (8.461 eurotik 22.472 eurora); eta 56-65 tartetik 65 urte baino gehiagoko tartera batez bestekoa 13.862 eurotan jaisten da (31.397 eurotik 17.535 eurora).

3.4. Soldatak LGSaren tarteen arabera

Jasotako soldata tartetean banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2019. urtean 12.600 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, hiru tarte nabarmentzen dira:

- LGSren 0 eta 0,5 arteko soldata jasotzaile guztien %15,7k jasotzen dute (51.857 pertsona).
- LGSren 1,5 eta 2 arteko soldata jasotzaile guztien %14,7ak jasotzen dute (48.688 pertsona).
- LGSren 1 eta 1,5 arteko soldata jasotzaile guztien %13,7k jasotzen dute (45.396 pertsona).

Jasotzaile guztien erdiak baino gehiagok (%55,4) LGSren 2 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 25.200 euro baino gutxiago.

Taula 16. Soldatak LGSren tarteen arabera – 2019

Errenta tartea (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	51.857	15,7	132.864.785	1,5	2.562
0,5 - 1	36.987	11,2	350.336.795	4,1	9.472
1 - 1,5	45.396	13,7	718.704.448	8,4	15.832
1,5 - 2	48.688	14,7	1.073.112.055	12,5	22.041
2 - 2,5	42.304	12,8	1.195.422.221	13,9	28.258
2,5 - 3	33.660	10,2	1.161.793.282	13,5	34.516
3 - 3,5	26.946	8,2	1.100.475.368	12,8	40.840
3,5 - 4	17.301	5,2	812.525.347	9,5	46.964
4 - 4,5	9.324	2,8	496.197.421	5,8	53.217
4,5 - 5	5.289	1,6	315.256.791	3,7	59.606
5 - 7,5	9.444	2,9	705.089.924	8,2	74.660
7,5 - 10	1.935	0,6	206.983.274	2,4	106.968
> 10	1.195	0,4	310.793.883	3,6	260.079
Guztira	330.326	100,00	8.579.555.593	100,00	25.973

Zenbatekoak eurotan

(*) 2019an Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren balio 12.600 eurokoa da

Soldatetan erdiko mailatan metatzen da zenbatekorik gehiena, LGSren 1,5 eta 3,5 bitartean; eta horien artean aipatzekoa da LGS 2 eta 2,5 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %13,9 metatzen dutela, kopuruan %12,8 direnean.

3.5. Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik

Txostenaren sarreran aipatu dugun bezala, soldaten analisia bi ikuspegitik egiten da:

- Alde batetik, soldata jasotzen duen pertsonaren bizilekuan oinarritutakoa; orain arte aztertu ditugu Gipuzkoan bizi diren pertsonen datuak, nahiz eta horiek Gipuzkoatik kanpo lan egin.
- Beste alde batetik, puntu honetan aztertuko duguna da Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileak ordaindutako soldatak, nahiz eta jasotzailea Gipuzkoatik kanpo helbideratua egon.

3.5.1. Izaera juridikoaren arabera

2019an 26.868 soldata ordaintzaile daude Gipuzkoan. Gehiengo nagusia sozietateak osatzen dute (%59,1) eta horien artean erantzukizun mugatutako sozietateak nabarmentzen dira (ordaintzaile guztien ia erdia, %48,9). Bigarren talde nagusia pertsona fisikoak dira (%28,5).

Jasotzaileei dagokionez, %38,6k erantzukizun mugatutako sozietateetan lan egiteagatik jasotzen dute soldata; %22,4k sozietate anonimoetan egiteagatik; administrazio publikoetan jasotzaile guztien %13,8k egin du lan; eta kooperatibetan %10,8k.

Taula 17. Soldatak izaera juridikoaren arabera – 2019

Izaera juridikoa	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Enpresa pertsonalak	9.176	34,2	23.434	7,2	290.324.135	3,5	12.389
- Pertsona fisikoak	7.664	28,5	18.518	5,7	221.457.379	2,7	11.959
- Errenta egozpen erregimenekoak	1.512	5,6	4.916	1,5	68.866.756	0,8	14.008
Sozietateak	15.870	59,1	234.491	72,5	5.982.711.498	72,0	25.514
- Sozietate anonimoak	1.773	6,6	72.479	22,4	2.149.461.508	25,9	29.656
- Erantzukizun mugatutako sozietateak	13.133	48,9	124.932	38,6	2.872.730.600	34,6	22.994
- Kooperatibak	761	2,8	34.869	10,8	897.478.139	10,8	25.739
- Bestelakoak	203	0,8	2.211	0,7	63.041.252	0,8	28.514
Administrazio publikoak	192	0,7	44.692	13,8	1.568.351.203	18,9	35.092
Irabazi asmorik gabeko entitateak	1.630	6,1	20.727	6,4	468.014.984	5,6	22.579
Guztira	26.868	100,0	323.345	100,0	8.309.401.820	100,0	25.698

Zenbatekoak eurotan



Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte, guztiaren %34,6; sozietate anonimoak ere portzentaje handia metatzen dute (%25,9); administrazio publikoek soldaten %18,9 ordaintzen dituzte; eta kooperatibak %10,8.

Soldataren batez besteko handiena administrazio publikoetan lan egiten dutenak jasotzen dute: 35.092 euro. Sozietate anonimoetako langileen batez bestekoa 29.656 eurotako da, eta kooperatibetakoena 25.739 euro. Zenbatekorik txikienak enpresa pertsonaletan lan egiten dutenena da: 11.959 euro.

Beraz, eta laburtuz:

- Ordaintzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateak dira.
- Jasotzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateetan egiten dute lan.
- Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte.
- Batez besteko soldatarik handienak administrazio publikoetako langileak jasotzen dituzte.

Ondorengo tauletan azken hamabi urteetan 5 talde nagusiek izan duten bilakaera aztertzen da.

Taula 18. Jasotzaileen bilakaera izaera juridikoaren arabera

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2010	23.321		83.273		104.591		30.082		41.300	
2011	22.754	-2,4	79.677	-4,3	102.736	-1,8	31.353	4,2	40.473	-2,0
2012	22.347	-1,8	76.937	-3,4	100.601	-2,1	31.117	-0,8	39.823	-1,6
2013	22.171	-0,8	71.666	-6,9	98.412	-2,2	30.935	-0,6	39.386	-1,1
2014	22.784	2,8	71.135	-0,7	101.959	3,6	30.653	-0,9	40.249	2,2
2015	23.519	3,2	72.192	1,5	107.131	5,1	31.441	2,6	42.140	4,7
2016	23.622	0,4	70.293	-2,6	111.384	4,0	31.736	0,9	44.183	4,8
2017	23.727	0,4	72.352	2,9	116.427	4,5	32.899	3,7	44.901	1,6
2018	23.810	0,4	73.196	1,2	120.491	3,5	34.155	3,8	42.907	-4,4
2019	23.434	-1,6	72.479	-1,0	124.932	3,7	34.869	2,1	44.692	4,2
2010/2019	113	0,5	-10.794	-13,0	20.341	19,4	4.787	15,9	3.392	8,2



Langile kopuruari dagokionez:

- Enpresa pertsonalak langileak irabazi ditu, gutxi izan arren. 2010. urteko 23.321 langiletik 23.434 langilera pasa da hamar urteetan (+%0,5).
- Sozietate anonimoak izan dira langile gehien galdu dutenak. 2010etik aurrera galera nabarmenak dituzte, eta aztertutako hamar urteko epealdian langile kopurua %13,0 jaitsi da (10.794 jasotzaile gutxiago).
- Erantzukizun mugatutako sozietateak dira bilakaera hobea izan dutenak. Hamar urteko epealdiko lehen zatian langile kopurua asko jaitsi zen: langile kopuru txikiena 2013. urtean jasotzen da (98.412 langile), 2010ean baino 6.179 gutxiago. Gero, bilakaera positiboa bihurtzen da, eta hamar urteko epealdia 20.341 langile gehiagorekin amaitzen da (+%19,4), eta epealdiko langile kopuru handiena 2019. urtean ematen da.
- Kooperatibetan lan egiten duten pertsona kopurua %15,9 igo da azken hamar urteetan. 2012ko, 2013ko eta 2014ko beherakadak izan ezik, beste urte guztietan igoerak eman dira.
- 2010etik 2019ra administrazio publikoetako langile kopurua %8,2 handitu da. Dena den, 2011, 2012, 2013 eta 2018 urteetan beherakadak eman dira, -%2,0 2011n, -%1,6 2012n, -%1,1 2013n eta -%4,4 2018n.

Taula 19. Soldaten bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2010	287.132.577		2.197.987.978		2.130.928.949		711.834.469		1.369.476.872	
2011	281.811.683	-1,9	2.203.368.942	0,2	2.157.720.191	1,3	754.476.241	6,0	1.356.033.894	-1,0
2012	270.617.825	-4,0	2.165.315.674	-1,7	2.099.720.131	-2,7	743.527.645	-1,5	1.279.309.455	-5,7
2013	255.498.865	-5,6	2.062.480.822	-4,7	2.067.939.902	-1,5	733.482.727	-1,4	1.341.122.222	4,8
2014	254.360.923	-0,4	2.033.101.431	-1,4	2.142.429.873	3,6	735.866.926	0,3	1.353.000.345	0,9
2015	264.056.098	3,8	2.017.382.192	-0,8	2.273.048.843	6,1	769.928.901	4,6	1.383.297.511	2,2
2016	268.437.371	1,7	2.006.884.758	-0,5	2.392.587.031	5,3	793.663.070	3,1	1.420.018.789	2,7
2017	277.097.297	3,2	2.014.444.066	0,4	2.520.924.144	5,4	799.438.012	0,7	1.446.899.205	1,9
2018	287.833.852	3,9	2.122.710.322	5,4	2.704.208.341	7,3	867.681.952	8,5	1.469.748.223	1,6
2019	290.324.135	0,9	2.149.461.508	1,3	2.872.730.600	6,2	897.478.139	3,4	1.568.351.203	6,7
2010/2019	3.191.558	1,1	-48.526.470	-2,2	741.801.651	34,8	185.643.670	26,1	198.874.331	14,5



Azken hamar urteetan ordaindutako soldatei dagokionez, aztertutako lau taldek bilakaera positiboa erakusten dute eta talde batek bilakaera negatiboa:

- Enpresa pertsonalak %1,1eko igoera izan dute. 2014 arte jaitsierak eman ziren urtez urte; baina hortik aurrera igoerak eman dira, eta 2019an %0,9 egiten dute gora.
- Sozietate anonimoak bilakaera negatiboa izan dute eta ordaindutako soldata osoak %2,2 jaitsi dira.
- Erantzukizun mugatutako sozietateak ordaindutako soldata osoek krisiaren eraginez beherakadak eman dira 2010etik 2014ra, 2011n izan ezik. 2014-2019 epealdian soldatak %3,6 baina portzentaje handiagoan igotzen dira. Guztira, hamar urteetan %34,8 igo dira.
- Kooperatibak ordaindutako soldata osoen bilakaera aurreko taldeen antzekoa da: jaitsiara 2010etik 2014ra, salbuespena 2011. urtea da (+%6,0). 2014tik aurrera soldatak gora egiten dute. Guztira, soldatak %26,1 igo dira hamar urteetan.
- Administrazio publikoetan soldaten doiketa beranduago heldu da: 2011n jaitsiara txiki bat gertatzen da (-%1,0); eta jaitsierarik handiena 2012an ematen da (-%5,7). 2013an berriro %4,8 igotzen dira soldatak (2012ko jaitsieran zer ikusia izan zuen abenduko ordainketa berezia kendu izanak). Guztira hamar urteko epealdi honetan administrazio publikoek ordaindutako soldata osoak %14,5 handitu dira.

Dena den, azken hamar urteetan soldaten batez bestekoaren portaeran alde batzuk nabari dira. Gehien igo dena erantzukizun mugatutako sozietateetako izan da: +%12,9. Ondoren sozietate anonimoetako langileak datoz (+%12,4), eta gero kooperatibatako langileen soldatak (+%8,8). Administrazio publikoetan lan egiten dutenen soldatak %5,8 igo dira 2010etik 2019ra, eta azkenik, enpresa pertsonaletan lan egiten dutenen batez besteko soldata %0,6 igo da.

Kontuan izanda epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %12,3 igo dela, aldeak nabariak dira ordaintzaile motaren arabera. Horrela, hamar urteko epealdi osoan erantzukizun mugatutako sozietateetako langileak eta sozietate anonimoetakoak erosketa ahalmena irabazi dute; kooperatibatako langileak erosketa ahalmena galdu dute (3,5 puntu); administrazio publikoetako langileen batez besteko soldata ia-ia KPI pare igo da 2012. urtera arte baina epealdian

erosketa ahalmena galdu dute (-6,5 puntu); eta enpresa pertsonaletako langileak, berriz, erosketa ahalmen gehiena galdu dute, %11,7.

Taula 20. Soldaten batez bestekoaren bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2010	12.312		26.395		20.374		23.663		33.159	
2011	12.385	0,6	27.654	4,8	21.002	3,1	24.064	1,7	33.505	1,0
2012	12.110	-2,2	28.144	1,8	20.872	-0,6	23.894	-0,7	32.125	-4,1
2013	11.524	-4,8	28.779	2,3	21.013	0,7	23.710	-0,8	34.051	6,0
2014	11.164	-3,1	28.581	-0,7	21.013	0,0	24.006	1,2	33.616	-1,3
2015	11.228	0,6	27.945	-2,2	21.218	1,0	24.488	2,0	32.826	-2,3
2016	11.364	1,2	28.550	2,2	21.480	1,2	25.008	2,1	32.140	-2,1
2017	11.679	2,8	27.842	-2,5	21.652	0,8	24.300	-2,8	32.224	0,3
2018	12.089	3,5	29.000	4,2	22.443	3,7	25.404	4,5	34.255	6,3
2019	12.389	2,5	29.656	2,3	22.994	2,5	25.739	1,3	35.092	2,4
2010/2019	77	0,6	3.261	12,4	2.620	12,9	2.076	8,8	1.933	5,8

3.5.2. Langile kopuruaren arabera

Soldaten ordaintzaileak dituen langile kopuruaren arabera, gehiengo nagusiak (%60,3) langile 1 eta 3 bitartean ditu. Hurrengo tartean, 4-9 langile, ordaintzaile guztien %21,8a, eta 10-19 langile bitartean %8,9. Beraz, Gipuzkoako ordaintzaile guztien %91,0k 20 langile baino gutxiago ditu.

Jasotzaile kopuruaren banaketa askoz orekatuagoa da. Dena den, kopururik handiena 500 langile baino gehiago dituzten 52 ordaintzaileetan metatzen da: 78.298 (%24,2).

Batez beste, Gipuzkoako ordaintzaile bakoitzak 12,0 langile ditu.

Ordaindutako soldatek langile kopuruaren antzeko banaketa dute. Hemen ere 500 langiletik gorako ordaintzaileak nagusitzen dira: soldata guztien %28,9 metatzen dute.



Taula 21. Soldatak langile kopuruaren arabera – 2019

Tamaina (langile kopurua)	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
1-3	16.206	60,3	26.039	8,1	503.021.350	6,1	19.318
4-9	5.853	21,8	36.021	11,1	768.409.678	9,2	21.332
10-19	2.378	8,9	33.097	10,2	750.363.608	9,0	22.672
20-49	1.568	5,8	47.764	14,8	1.149.785.497	13,8	24.072
50-99	456	1,7	31.769	9,8	817.912.131	9,8	25.746
100 - 249	283	1,1	45.349	14,0	1.260.621.510	15,2	27.798
250- 499	72	0,3	25.008	7,7	661.480.759	8,0	26.450
>=500	52	0,2	78.298	24,2	2.397.807.286	28,9	30.624
Guztira	26.868	100,0	323.345	100,0	8.309.401.820	100,0	25.698

Zenbatekoak eurotan

Batez bestekoari dagokionez, ordaintzailearen tamaina zenbat eta handiago izan, orduan eta zenbateko altuagoa. 500 langiletik gorako ordaintzaileak soldata moduan 30.624 euro ordaintzen dituzte batez beste, eta 1-3 langile bitartean dituztenek, berriz, 19.318 euro ordaintzen dute.

3.5.3. Sektoreen arabera

Ordaintzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitorpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, jarduera sektorea. Horrela, 2019. urteko 26.868 ordaintzailetik ez dugu ezagutzen 1.552ren jarduera sektorea; dena den, %5,8ko hutsune hori txikiagoa da jasotzaile kopurua aztertzerakoan (%4,2) eta ordaindutako soldatetan (%3,2). Beraz, hutsune horiek ez diote adierazgarritasunik kentzen lortutako emaitzei.

Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean dago Gipuzkoako ordaintzaile kopururik handiena: 8.889 (%35,1). Bigarren lekuan Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonalen sektorea dago (%18,0), eta ondoren Enpresei eginiko zerbitzuak (%15,7). Hirurak ere zerbitzuei lotutako sektoreak dira. Industria sektorean, berriz, 2.997 ordaintzaile daude (guztien %11,8), eta eraikuntzan 2.940 (%11,6).

Baina banaketa hori aldatu egiten da soldata jasotzaile kopurua aztertzen badugu; izan ere, gizarte zerbitzuen sektorean dago kopururik handiena: 74.843 soldatapeko, hau da, guztien %24,2. Industrian 68.486 pertsonak (%22,1) jasotzen dute soldata, eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean 66.232 pertsonak (%21,4).

Taula 22. Soldatak sektoreen arabera – 2019

Sektoreak	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	46	0,2	219	0,1	4.150.087	0,1	18.952
Energia eta ura	94	0,4	2.505	0,8	78.933.610	1,0	31.511
Industria	2.997	11,8	68.486	22,1	2.169.482.841	27,0	31.678
Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa	2.940	11,6	17.335	5,6	441.967.569	5,5	25.496
Merkataritza, garraioak eta konponketak	8.889	35,1	66.232	21,4	1.451.098.322	18,0	21.909
Komunikazioak eta informazioa	29	0,1	161	0,1	4.837.984	0,1	30.036
Banka eta aseguruak	270	1,1	4.912	1,6	208.440.844	2,6	42.435
Enpresei eginiko zerbitzuak	3.975	15,7	39.436	12,7	870.032.558	10,8	22.062
Gizarte zerbitzuak	1.528	6,0	74.843	24,2	2.263.095.310	28,1	30.238
Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	4.548	18,0	35.609	11,5	548.103.547	6,8	15.392
Guztira	25.316	100,0	309.738	100,0	8.040.142.674	100,0	25.958

Zenbatekoak eurotan

Soldata zenbatekorik handiena gizarte zerbitzuetako jarduerak ordaintzen du (2.263 milioi euro; %28,1); Industria sektoreak egiten dituztenek 2.169 milioi euro ordaintzen dute (guztiaren %27,0); eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko ordaintzaileak 1.451 milioi euro (%18,0).

Batez bestekorik handiena banka eta aseguru sektore ordaintzaileak ordaintzen dute: 42.435 euro bertan lan egiten duen 4.912 pertsonako. Ondoren Industria sektorea dator: 31.678 euro. Energia eta ura sektoreko ordaintzaileak 31.511 euro ordaintzen dute batez beste; baina hor, 2.505 pertsonak bakarrik egiten dute lan.

Gipuzkoan lan-zentroa duten Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektoreko enpresek dituzten jasotzaile kopurua %59,2 igo da 2010etik. Dena den, esan beharra dago balio absolutuetan oso soldatapeko gutxi direla sektore horretan lan egiten dutenak.

Azken hamar urteetan Industria sektoreko ordaintzaileak 4.940 soldatapeko galdu dituzte; 2010ean 71.865 pertsonak egiten zuten lan, eta 2019an 68.486 pertsonak. Taulan ikustenenez, beherakada esanguratsuenak epealdiaren hasieran eman dira.

Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioan langile kopururik altuena 2010ean lortu zen: 22.275 langile. Hortik aurrera, beherakadak izan ditu, eta 2012an jaitsiera handiena eman zen (-%9,1). 2010etik jaitsiera %22,2koa izan da.

Taula 23. Jasotzaileen bilakaera sektoreen arabera

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza		Energia eta ura		Industria		Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa		Merkataritza, garraioak eta konponketak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2010	138		3.082		71.865		22.275		59.349	
2011	133	-3,1	3.110	0,9	70.243	-2,3	20.381	-8,5	58.348	-1,7
2012	118	-11,5	3.005	-3,4	68.048	-3,1	18.519	-9,1	56.750	-2,7
2013	122	3,4	2.885	-4,0	64.354	-5,4	16.938	-8,5	55.760	-1,7
2014	145	18,9	2.954	2,4	63.885	-0,7	15.931	-5,9	56.938	2,1
2015	155	7,0	2.926	-0,9	63.592	-0,5	15.955	0,1	59.219	4,0
2016	145	-6,4	2.779	-5,0	64.169	0,9	16.384	2,7	60.790	2,7
2017	162	11,7	2.973	7,0	66.144	3,1	16.391	0,0	62.745	3,2
2018	193	18,7	2.913	-2,0	68.072	2,9	16.943	3,4	63.869	1,8
2019	219	13,6	2.505	-14,0	68.486	0,6	17.335	2,3	66.232	3,7
2010/2019	81	59,2	-577	-18,7	-3.379	-4,7	-4.940	-22,2	6.884	11,6

Taula 23. jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa		Banka eta aseguruak		Enpresei eginiko zerbitzuak		Gizarte zerbitzuak		Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2010	187		7.849		36.889		66.841		29.809	
2011	185	-1,1	7.539	-3,9	35.445	-3,9	66.845	0,0	30.385	1,9
2012	184	-0,3	7.201	-4,5	33.912	-4,3	66.040	-1,2	29.840	-1,8
2013	195	6,0	7.013	-2,6	33.664	-0,7	65.538	-0,8	29.668	-0,6
2014	176	-9,7	5.644	-19,5	34.442	2,3	66.850	2,0	30.817	3,9
2015	158	-10,4	6.543	15,9	37.216	8,1	69.162	3,5	32.404	5,1
2016	175	11,3	5.112	-21,9	36.581	-1,7	71.092	2,8	34.423	6,2
2017	190	8,2	5.224	2,2	37.880	3,6	72.999	2,7	35.312	2,6
2018	168	-11,7	5.059	-3,2	38.843	2,5	71.605	-1,9	36.103	2,2
2019	161	-3,9	4.912	-2,9	39.436	1,5	74.843	4,5	35.609	-1,4
2010/2019	-26	-13,7	-2.936	-37,4	2.548	6,9	8.001	12,0	5.800	19,5

(*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek 13,5 puntuko distortsio negatiboa sortzen du 2013/2014 konparaketan. Baldintza homogeneousan, bariazioa %6koa da, eta -%3,9koa 2003/2014 epealdian metatua.



Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko soldatapeko kopurua %11,6 igo da 2010eko datuekin alderatuta. Dena den, hemen ere krisiaren eragina nabarmentzen da, eta 2010etik aurrera jaitsierak ematen dira. 2014an joera aldatzen da eta jasotzaile kopurua igo egiten da (+%2,1). 2015ean igoera handitu egin da (+%4,0) , 2016an %2,7 igo zen, 2017an %3,2 igo zen, 2018an %1,8 igo da eta 2019an %3,7.

Gipuzkoako Banka eta aseguru sektorean 4.912 jasotzaile daude 2019. urtean, orain dela 10 urte baino %37,4 gutxiago.

Enpresei eginiko zerbitzuetako soldatapeko kopurua hamar urte hauetan, 2010eko 36.889tik 2019ko 39.436ra pasa da. Dena den, urteetan zehar gora beherak eman dira, eta 2008 arte irabazitako 5.000 soldatapeko, krisiarekin galdu egin dira. 2014. urtean hobekuntza motel bat eman da, eta %2,3 igo da, eta 2015ean igoera finkatzen da (+%8,1). 2016an %1,7 jaisten da. 2017an gora egiten du, %3,6, 2018an %2,5 gora egiten du eta 2019an berriro gora egiten du (+%1,5).

Balio absolutuetan jasotzaile gehien irabazi duen sektorea Gizarte zerbitzuetakoa da: 2010ean baino 8.001 soldatapeko gehiago (+%12,0).

Eta azkenik, Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonaletako sektorea da proportzionalki soldatapeko gehien irabazi duena azken hamar urteetan: +%10,5 (Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako sektorea kontuan izan gabe, jasotzaile kopuru txikia duelako) . Beherakada bakarrak (-%1,8) 2012an, (-%0,6) 2013an eta (-%1,4) 2019an eman dira.

Zenbatekoei dagokionez berriz, banka eta aseguruak sektorean (-%33,1), komunikazioak eta informazioa (-%26,0) eta energia eta ura (-%8,8), 2019an ordaindutako soldata osoa 2010ekoa baino txikiago da.

Igoerarik handiena Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako sektorean eman da: +%59,6; eta Igoerarik txikiena industrian, +%10,6.

Taula 24. Soldata osoen bilakaera sektoreen arabera (eurotan)

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	Bar. %	Energia eta ura	Bar. %	Industria	Bar. %	Eraikuntza eta jarduera inmobiliaria	Bar. %	Merkataritza, garraioak eta konponketak	Bar. %
2010	2.599.927		86.513.763		1.960.732.007		514.271.570		1.239.150.395	
2011	2.387.017	-8,2	89.565.691	3,5	2.017.502.653	2,9	478.018.522	-7	1.242.937.350	0,3
2012	2.300.152	-3,6	87.263.412	-2,6	1.958.213.859	-2,9	421.701.459	-12	1.190.393.780	-4,2
2013	2.263.535	-1,6	86.721.704	-0,6	1.870.225.059	-4,5	377.308.913	-11	1.169.891.221	-1,7
2014	2.510.587	10,9	88.271.911	1,8	1.880.075.194	0,5	363.647.798	-3,6	1.185.029.592	1,3
2015	2.733.262	8,9	86.502.323	-2,0	1.897.120.800	0,9	365.450.448	0,5	1.234.099.595	4,1
2016	2.530.119	-7,4	83.350.568	-3,6	1.935.595.906	2	373.554.251	2,2	1.279.825.336	3,7
2017	2.976.499	17,6	85.759.630	2,9	1.955.254.914	1	383.684.697	2,7	1.326.209.987	3,6
2018	3.767.459	26,6	87.668.231	2,2	2.113.739.272	8,11	411.010.064	7,12	1.386.382.194	4,5
2019	4.150.087	10,2	78.933.610	-10,0	2.169.482.841	2,6	441.967.569	7,5	1.451.098.322	4,7
2010/2019	1.550.160	59,6	-7.580.153	-8,8	208.750.834	10,6	-72.304.001	-14,1	211.947.927	17,1

Taula 24. Jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa	Bar. %	Banka eta aseguruak	Bar. %	Enpresei eginiko zerbitzuak	Bar. %	Gizarte zerbitzuak	Bar. %	Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	Bar. %
2010	6.538.918		311.412.591		707.158.965		1.905.991.007		381.774.530	
2011	6.707.339	2,6	299.836.745	-3,7	716.776.029	1,4	1.924.699.811	1,0	404.650.258	6,0
2012	6.538.207	-2,5	277.836.290	-7,3	694.807.412	-3,1	1.848.902.760	-3,9	382.599.630	-5,4
2013	6.441.485	-1,5	271.296.789	-2,4	684.354.595	-1,5	1.907.921.231	3,2	383.312.076	0,2
2014	6.029.057	-6,4	246.860.218	-9,0	682.138.324	-0,3	1.934.707.520	1,4	400.996.254	4,6
2015	5.491.207	-8,9	247.134.804	0,1	738.132.470	8,2	1.981.046.464	2,4	419.423.928	4,6
2016	5.822.203	6,0	226.880.624	-8,2	754.107.874	2,2	2.019.252.253	1,9	459.752.546	9,6
2017	5.727.932	-1,6	220.602.118	-2,8	768.017.818	1,8	2.073.087.677	2,7	493.658.802	7,4
2018	5.098.541	-11,0	210.150.935	-4,7	821.133.038	6,9	2.120.344.390	2,3	540.114.177	9,4
2019	4.837.984	-5,1	208.440.844	-0,8	870.032.558	6,0	2.263.095.310	6,7	548.103.547	1,5
2010/2019	-1.700.934	-26,0	-102.971.747	-33,1	162.873.593	23,0	357.104.303	18,7	166.329.017	43,6

(*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek distorsio negatiboa sortzen du, eta baldintza homogeneotan, 2003/2014 epealdian metatutako bariazioa +%4,6koa da.



4. PENTSIOAK

Pentsioen datuak aztertzen hasi baino lehen aipatu beharra dago 2012. urterako zenbait hobekuntza sartu zirela pentsiodunen informazioaren kalitatea hobetzeko. 2012. urte arte informazio hutsuneak zirela-eta balio gabe geratzen ziren erregistro askoren datuak eskuratu ahal izan dira 2012an, 2013an, 2014an, 2015ean, 2016an, 2017an, 2018an eta 2019an. Ondorioz, 2012an aztertutako pentsiodunen kolektiboa handitu egin zen. Aldaketa horren eraginez, aztertutako pentsiodun kopurua %3,8 handitu zen 2011rekin alderatuta, eta jasotako pentsioak, berriz, %3,0. Beraz, 2012an, 2013an, 2014an, 2015ean, 2016an, 2017an, 2018an eta 2019an datu homogeneousak dira.

2019. urtean pentsio publikoak 185.078 pertsonen jaso dituzte, iaz baino %1,4 gehiagok. Jasotako pentsioen zenbateko osoa 3.513 milioi euro izan dira, 2018n baino %5,7 handiagoa. Pertsona bakoitzak jasotako batez besteko pentsioa 18.983 eurokoa izan da.

Taula 25. Pentsioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2010	153.428		2.269.200.613		14.790	
2011	156.316	1,9	2.405.967.681	6,0	15.392	4,1
2012(*)	164.946	5,5	2.566.046.320	6,7	15.557	1,1
2013	167.526	1,6	2.685.394.580	4,7	16.030	3,0
2014	169.641	1,3	2.845.631.389	6,0	16.774	4,6
2015	174.854	3,1	2.958.724.879	4,0	16.921	0,9
2016	177.019	1,2	3.061.417.945	3,5	17.294	2,2
2017	180.494	2,0	3.166.919.292	3,4	17.546	1,5
2018	182.467	1,1	3.323.809.815	5,0	18.216	3,8
2019	185.078	1,4	3.513.293.661	5,7	18.983	4,2
2010/2019		20,6		54,8		28,3

Zenbatekoak eurotan

(*) Urte honetan informazioaren kalitatean zenbait hobekuntza sartu dira, eta ondorioz pentsiodun kopurua %3,8 igo da, eta zenbatekoa %3,0.



Azken hamar urteetan pentsioak jaso dituzten pertsona kopurua %20,6 igo da. Eta igoera etengabea izan da urtez urte.

Jasotako pentsioei dagokionez, %54,8 igo dira 2010. urtetik: 2.269 milioi eurotik 3.513 milioi eurora. Kasu honetan ere, igoerak urtero eman dira etenik gabe. Pertsonako batez besteko pentsioa %28,3 igo da hamar urteko epealdi honetan: 14.790 eurotik 18.983 eurora. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %12,3 igo dela.


Datu horiek, pentsio publikoen arloan azken urteetan eman diren aldaketa garrantzitsuen isla garbia dira. Alde batetik, populazioaren adin-piramidea dela-eta pentsioa jasotzeko eskubidea duten pertsona kopurua etengabe handitzen ari da; eta beste alde batetik, sistemara gehitzen diren pertsona berriek gero eta pentsio altuagoekin egiten dute, izan ere, sistema egin dituzten kotizazioak handiagoak izan dira.

4.1 Pentsioak sexuaren arabera

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitorpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2019. urteko 185.078 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 3.417ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %1,8ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %49,2 emakumezkoa da, eta beste %50,8 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %40,9 jasotzen dute, eta gizonezkoek %59,1.

Grafikoa 8 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2019



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 15.867 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 22.239 eurokoa.

Grafikoa 9 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2019



Azken hamar urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 74.474tik 89.432ra pasa dira (+%20,1), eta gizonezkoak 77.080tik 92.229ra (+%19,7).

Taula 26. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	74.474		77.080	
2011	75.836	1,8	78.545	1,9
2012	77.509	2,2	80.365	2,3
2013	78.570	1,4	81.665	1,6
2014	79.557	1,3	83.023	1,7
2015	82.269	3,4	85.490	3,0
2016	83.429	1,4	86.777	1,5
2017	85.837	2,9	88.012	1,4
2018	88.221	2,8	91.293	3,7
2019	89.432	1,4	92.229	1,0
2010/2019		20,1		19,7

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamar urteetan: +%66,2 (854 milioi eurotik 1.419 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 1.393 milioi eurotik 2.051 milioi eurora pasa dira (+%47,2). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 2,9 puntu igo da azken hamar urteetan: 2010eko %38,0tik lehen aipatutako %40,9ra. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %62,0tik %59,1era.

Taula 27. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	853.735.358		1.393.467.600	
2011	908.519.425	6,4	1.474.680.151	5,8
2012	951.743.221	4,8	1.529.034.399	3,7
2013	999.917.213	5,1	1.596.829.770	4,4
2014	1.067.389.051	6,7	1.689.496.928	5,8
2015	1.116.723.894	4,6	1.753.863.201	3,8
2016	1.168.100.503	4,6	1.810.292.017	3,2
2017	1.220.037.874	4,4	1.864.525.686	3,0
2018	1.319.366.427	8,1	1.968.134.408	5,6
2019	1.419.002.003	7,6	2.051.076.217	4,2
2010/2019		66,2		47,2

2010etik 2019ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %38,4 igo da: 11.464 eurotik 15.867 eurora. Gizonezkoena, berriz, %23,0 igo da: 18.078 eurotik 22.239 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %12,3 igo da.


Taula 28. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	11.464		18.078	
2011	11.980	4,5	18.775	3,9
2012	12.279	2,5	19.026	1,3
2013	12.726	3,6	19.553	2,8
2014	13.417	5,4	20.350	4,1
2015	13.574	1,2	20.515	0,8
2016	14.001	3,1	20.861	1,7
2017	14.213	1,5	21.185	1,6
2018	14.955	5,2	21.558	1,8
2019	15.867	6,1	22.239	3,2
2010/2019		38,4		23,0

Azken hamar urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2010. urtean %36,6koa zen eta 2019an %28,7koa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %28,7 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan ere, txikitu egin da: 2010ean 6.615 euroko aldea zegoen, eta 2019an 6.372 eurokoa da.

Grafikoa 10 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera



4.2. Pentsioak adinaren arabera

Pentsiodunen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2019. urteko 185.078 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 4.183ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,3ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

55 urtetik beherako pentsiodunen kopurua oso txikia da: guztien %5,2. Gero, adinean aurrera joan ahala kopuruak handitu egiten dira: 56-65 bitartekoak %17,0 dira (30.810 pertsona); 66-75 bitartean 68.906 pentsiodun daude (%38,1); eta gehiengoa azken tartean dago (75 urtetik gorakoa): 71.781 pertsona, hau da, guztien %39,7.

Taula 29. Pentsioak adin tarteen arabera - 2019

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	157	0,1	1.272.459	0,0	8.105
26 - 35	486	0,3	4.855.506	0,1	9.991
36 - 55	8.755	4,8	115.769.053	3,3	13.223
56 - 65	30.810	17,0	621.512.344	18,0	20.172
66 - 75	68.906	38,1	1.503.706.467	43,5	21.823
> 75	71.781	39,7	1.211.789.829	35,0	16.882
Guztira	180.895	100,00	3.458.905.658	100,0	19.121

Zenbatekoak eurotan

Pentsioen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak (55 urtetik beherakoak) pentsio osoen %3,4 jasotzen dute; 56 eta 65 bitartekoak 622 milioi euro (%18,0); 66-75 bitartekoak 1.504 milioi euro (%43,5), eta zaharrenak (75 urtetik gorakoak) %35,0a.

Bestalde, batez besteko pentsiorik handiena 66 eta 75 urte bitartean dutenak jasotzen dute: 21.823 euro. Antzeko zenbatekoa jasotzen dute 56-65 bitartekoak (20.172 euro). Gero, jaitsi egiten da 75 urte baino gehiago dutenentzat: 16.882 euro.

4.3. Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera

Jasotako pentsioa tartetean banatzerakoan Gutxieneko Pentsioa (GP) erabili da. Bere balio 2019. urtean 9.000,6 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, lau tarte nabarmentzen dira:

- GParen 0,5 eta 1 arteko pentsioa jasotzaile guztien %10,5ek jasotzen dute (19.504 pertsona).
- GParen 1 eta 1,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %23,2k jasotzen dute (42.991 pertsona).
- GParen 1,5 eta 2 arteko pentsioa jasotzaile guztien %15,6k jasotzen dute (28.915 pertsona).
- GParen 2 eta 2,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %13,4k jasotzen dute (24.763 pertsona).

Taula 30. Pentsioak GParen tarteen arabera – 2019

Errenta tarte (GP)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	6.170	3,3	14.938.605	0,4	2.421
0,5 - 1	19.504	10,5	130.091.576	3,7	6.670
1 - 1,5	42.991	23,2	455.110.716	13,0	10.586
1,5 - 2	28.915	15,6	454.237.786	12,9	15.709
2 - 2,5	24.763	13,4	498.097.617	14,2	20.115
2,5 - 3	18.667	10,1	459.780.688	13,1	24.631
3 - 3,5	14.201	7,7	414.187.906	11,8	29.166
3,5 - 4	12.957	7,0	437.177.091	12,4	33.741
4 - 4,5	15.520	8,4	577.935.373	16,4	37.238
4,5 - 5	557	0,3	23.655.328	0,7	42.469
> 5	833	0,5	48.080.975	1,4	57.720
Guztira	185.078	100,00	3.513.293.661	100,00	18.983

Zenbatekoak eurotan

(*) 2019an Gutxieneko Pentsioaren balio 9.000,6 eurokoa da

Azkenean, jasotzaile guztien ia-ia erdiak (%37,0) GParen 1,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 13.500,9 euro baino gutxiago. Eta ia-ia hiru laurdenak (%66,0) GParen 2,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 22.501,5 euro baino gutxiago.

Pentsioen zenbatekoari dagokionez, gehiena 4-4,5 tartean metatzen da (578 milioi euro; %16,4); gero 2-2,5 tarte dator (498 milioi euro; %14,2); eta 1-1,5 tarteko pentsiodunek 455 milioi euro kobratzen dituzte, guztiaren %13,0.

5 LANGABEZIA PRESTAZIOAK

2019. urtean langabezia prestazioak 46.583 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %7,4 gehiagok. Zenbateko osoa 157 milioi eurokoa da, 2018an baino %15,5 handiagoa. Pertsonako batez bestekoa 3.360 euro izan dira.

Taula 31. Langabezia prestazioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2010	70.507		291.630.219		4.136	
2011	66.108	-6,2	263.356.205	-9,7	3.984	-3,7
2012	71.399	8,0	297.871.931	13,1	4.172	4,7
2013	69.913	-2,1	287.350.180	-3,5	4.110	-1,5
2014	61.091	-12,6	234.185.693	-18,5	3.833	-6,7
2015	52.855	-13,5	184.648.737	-21,2	3.493	-8,9
2016	47.665	-9,8	156.835.634	-15,1	3.290	-5,8
2017	44.705	-6,2	142.344.094	-9,2	3.184	-3,2
2018	43.365	-3,0	135.518.305	-4,8	3.125	-1,9
2019	46.583	7,4	156.524.981	15,5	3.360	7,5
2010/2019		-33,9		-46,3		-18,8

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan langabezia prestazioak jaso dituzten pertsona kopurua jaitsi egin da 23.924n: 70.507tik 46.583ra (-%33,9). 2010 urtetik aurrera, eta 2018. urteraino, 2012ko ekitaldia kenduta, langabezia prestazioa jaso duten pertsona kopurua jaisten joan da. 2019an joera aldatu eta pertsona kopuruak gora egin du (+%7,4).

Jasotako prestazioei dagokionez, %46,3 jaitsi dira 2010. urtetik. Kasu honetan, igoerarik handiena 2019n eman zen (+%15,5).


Pertsonako batez besteko langabezia prestazioa %18,8 jaitsi da hamar urteko epealdi honetan: 4.136 eurotik 3.360 eurora. Zenbatekorik handiena 2012koa izan da (4.172 euro).

5.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2019. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 46.583 pertsonatik ez dugu ezagutzen 1.264ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %53,1 emakumezkoa da, eta beste %46,9 gizonezkoa. Zenbatekoari begiratzten badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %49,3 jasotzen dute, eta gizonezkoek %50,7.

Grafikoa 11 – Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2019



Azken hamar urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da:

- Emakumezkoen kopurua 29.608tik 24.047ra jaitsi da (-%18,8).
- Gizonezkoen kopurua 38.923tik 21.272ra jaitsi da (-%45,3)

Taula 32. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	29.608		38.923	
2011	29.877	0,9	34.814	-10,6
2012	31.416	5,2	36.736	5,5
2013	30.715	-2,2	35.304	-3,9
2014	28.340	-7,7	29.986	-15,1
2015	25.491	-10,1	24.576	-18,0
2016	23.818	-6,6	22.048	-10,3
2017	22.796	-4,3	20.067	-9,0
2018	23.035	1,0	19.510	-2,8
2019	24.047	4,4	21.272	9,0
2010/2019		-18,8		-45,3

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %33,3 jaitsi da (113 milioi eurotik 75 milioi eurora), eta gizonezkoena %54,9 jaitsi da (172 milioi eurotik 77 milioi eurora).

Taula 33. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	112.741.802		171.768.314	
2011	110.552.896	-1,9	147.975.071	-13,9
2012	121.605.054	10,0	164.832.673	11,4
2013	117.290.070	-3,5	156.125.492	-5,3
2014	100.049.303	-14,7	124.872.316	-20,0
2015	83.890.340	-16,2	91.956.972	-26,4
2016	74.316.603	-11,4	77.003.589	-16,3
2017	69.433.627	-6,6	67.255.408	-12,7
2018	68.496.655	-1,3	64.668.545	-3,8
2019	75.171.796	9,7	77.439.559	19,7
2010/2019		-33,3		-54,9

5.2. Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera

Lehenago aipatu dugun bezala, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo Y atzerritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Gipuzkoan bizi diren langabezia prestazio jasotzailearen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2019an %89,4 dira bertakoak eta beste %10,6 atzerritarrak.

Dena den azken hamar urteetan atzerritarren partaidetza handitu egin da: 2010ean 6.825 atzerritarrek jaso zuten langabezia prestazioa, eta 2019an 4.945 dira; hau da, %27,5 gutxiago. 2011-2017 epealdiak jaitsierak erakusten ditu. 2018an eta 2019an kopuruak gora egin du.

Taula 34. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2010	63.682		6.825	
2011	59.392	-6,7	6.716	-1,6
2012	64.688	8,9	6.711	-0,1
2013	63.947	-1,1	5.966	-11,1
2014	55.843	-12,7	5.248	-12,0
2015	48.103	-13,9	4.752	-9,5
2016	43.293	-10,0	4.372	-8,0
2017	40.363	-6,8	4.342	-0,7
2018	38.866	-3,7	4.499	3,6
2019	41.638	7,1	4.945	9,9
2010/2019		-34,6		-27,5

Atzerritar kopuruaren jaitsiara, langabezia prestazioen zenbatekoan eman den jaitsiara baina txikiagoa izan da; izan ere, beraiek jasotako zenbatekoa 2010ean 26 milioi euro izatetik, 2019an 14 milioi euro izatera pasa da (-%46,9). Bertakoak jasotakoa 265 milioi eurotik 143 milioi eurora pasa da (-%46,3).



**Taula 35. Langabezia prestazioen bilakaera nazionalitatearen arabera
(eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2010	265.347.326		26.282.893	
2011	239.712.126	-9,7	23.644.079	-10,0
2012	273.039.124	13,9	24.832.807	5,0
2013	265.311.049	-2,8	22.039.131	-11,2
2014	216.968.717	-18,2	17.216.976	-21,9
2015	170.684.651	-21,3	13.964.085	-18,9
2016	144.453.135	-15,4	12.382.499	-11,3
2017	130.688.487	-9,5	11.655.608	-5,9
2018	123.795.099	-5,3	11.723.206	0,6
2019	142.580.651	15,2	13.944.330	18,9
2010/2019		-46,3		-46,9

5.3. Langabezia prestazioak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaien bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2019. urtean langabezia prestazioa 46.583 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 1.776ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

25 urtetik beherakoak jasotzaile guztien %6,1 dira; eta hortik aurrera banaketa nahiko orekatua da: 26-35 tartean %23,7a dago; 36 eta 45 urte tartean %25,6a; 46-55 tartean %23,3a; eta 55 urtetik gorakoak tartean %21,3a.

Taula 36. Langabezia prestazioak adin tarteen arabera - 2019

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	2.725	6,1	6.703.191	4,4	2.460
26-35	10.602	23,7	33.031.260	21,9	3.116
36-45	11.473	25,6	38.047.710	25,2	3.316
46-55	10.446	23,3	33.052.944	21,9	3.164
> 55	9.561	21,3	40.323.902	26,7	4.218
Guztira	44.807	100,00	151.159.008	100,0	3.374

Zenbatekoak eurotan

Langabezia prestazioaren zenbatekoari begiratuta, oreka oraindik ere handiagoa da. Lehen tartea izan ezik (%4,4), beste guztiak antzeko balioak dituzte:

- 26-35 tarreak zenbateko osoaren %21,9 metatzen du.
- 36-45 tarreak zenbateko osoaren %25,2 metatzen du.
- 46-55 tarreak zenbateko osoaren %21,9 metatzen du.
- 55 urtetik gorakoek zenbateko osoaren %26,7 metatzen dute.

5.4. Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera

Jasotako soldata tarreetan banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2019. urtean 12.600 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, gehiengo nagusia (%88,0) lehen tartean dago; horrek esan nahi du 6.300 euro baino gutxiago jaso dituztela. LGSren 0,5 eta 1 bitartean 4.620 pertsonak jaso dute (%9,9); eta hortik aurrera, hau da, 12.600 euro edo gehiago jasotzaile guztien %2,1ek jasotzen du.

Taula 37. Langabezia prestazioak LGSren tarteen arabera – 2019

Errenta tartea (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	40.989	88,0	101.546.681	64,9	2.477
0,5 - 1	4.620	9,9	39.463.684	25,2	8.542
1 - 1,5	803	1,7	11.447.355	7,3	14.256
>1,5	171	0,4	4.067.261	2,6	23.785
Guztira	46.583	100,00	156.524.981	100,0	3.360

Zenbatekoak eurotan

(*) 2019an Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 12.600 eurokoa da

Langabezia prestazioaren zenbatekoaren %64,9a lehen tartekoak jaso dute, eta batez bestekoa 2.477 eurokoa da. LGSren 0,5 eta 1 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %25,2 metatzen dute (39 milioi euro; batez beste 8.542 euro). Hurrengo tarteko jasotzaileak (LGS 1-1,5) aldiz zenbateko osoaren %7,3 jasotzen dute. Eta azken tartean portzentajea nabarmen jaisten da: LGS 1,5 aldiz baino gehiago jasotzen dutenena %2,6 da.

6 GIZARTE AURREIKUSPENEN ERRESKATEAK

Atal honetan Gipuzkoako biztanleak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Sistema horietara egindako kontribuzioak eta ekarpenak ekitaldi horretako PFEZren oinarri ezargarria murrizten dute. Hurrengo urteetan, zenbatekoak erreskatatzen direnean, PFEZn integratzen dira, lan etekin bezala. Erreskateak bi motatakoak izan daitezke:

- Errenta moduan egindakoak: urtero zenbateko bat jasotzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoa osoa PFEZren oinarri ezargarri orokorrean integratzen da, lan etekin bezala.
- Kapital moduan egindakoak: zenbateko guztia batera erreskatatzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoaren %60a PFEZren oinarri ezargarrian integratzen da, lan etekin bezala.

6.1. Errenta moduan egindako erreskateak

2019. urtean errenta moduan 18.119 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %4,4 gehiagok. Erreskatatutako zenbatekoa osoa (104 milioi euro) %4,8 jaitسي da 2018rekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 5.745 euro izan dira.

Taula 38. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2010	24.516		154.237.984		6.291	
2011	24.722	0,8	162.990.707	5,7	6.593	4,8
2012	26.146	5,8	177.742.598	9,1	6.798	3,1
2013	27.292	4,4	192.988.985	8,6	7.071	4,0
2014 (*)	21.976	-19,5	127.571.292	-33,9	5.805	-17,9
2015 (*)	16.434	-25,2	95.025.688	-25,5	5.782	-0,4
2016 (*)	15.875	-3,4	103.236.748	8,6	6.503	12,5
2017 (*)	16.351	3,0	98.285.381	-4,8	6.011	-7,6
2018 (*)	17.361	6,2	109.382.934	11,3	6.300	4,8
2019 (*)	18.119	4,4	104.097.668	-4,8	5.745	-8,8
2010/2019		-26,1		-32,5		-8,7

Zenbatekoak eurotan

(*) 2014tik aurrera hobekuntzak eman dira 190 ereduak ematen duen informazioan. Lehenago B gakoak (pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bi azpigako besterik ez zituen. 2014tik aurrera 10 azpigako baino gehiagotan banatzen da, eta horrela etekinak zehaztasun askoz gehiagorekin sailkatzen dira. Aldaketa horien

eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen B02 (gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain beste azpigako batzuekin aitortzen dituzte, eta pentsio bezala sailkatzen dira.


Taularen oineko oharrean azaltzen den bezala, 190 ereduari sartu diren aldaketek eragin handia izan dute datuetan. 2014. urtetik aurrera, 190 eredu berria aplikatzen dugula kontuan izanik, deritzogu entitate aitortzaileak etekinak kontzeptu espezifikoan aitortzen dituztela eta ez kontzeptu orokorrean.

6.1.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortzen datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2019. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 18.119 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 188ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %43,0 emakumezkoak dira, eta beste %57,0 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzeko badiogu, emakumezkoek guztiaren %36,6 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %63,4.

Grafikoa 12 – Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2019





Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2019. urtean 4.906 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 6.414 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistemataraz egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu eginda. Horrela, azken hamar urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 9.376tik 7.707ra (-%17,8) pasa da. Gizonezkoak, berriz, 14.440tik 10.224ra pasa dira (-%29,2). Bi kasuetan urtero eman dira igoerak, etekin gabe, 2014an, 2015ean eta 2016an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

Taula 39. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	9.376		14.440	
2011	9.562	2,0	14.480	0,3
2012	10.113	5,8	14.941	3,2
2013	10.648	5,3	15.463	3,5
2014	9.244	-13,2	12.019	-22,3
2015	6.954	-24,8	8.997	-25,1
2016	6.706	-3,6	8.725	-3,0
2017	6.815	1,6	9.361	7,3
2018	7.359	8,0	9.856	5,3
2019	7.707	4,7	10.224	3,7
2010/2019		-17,8		-29,2

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2010ean emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 46 milioi euro izan ziren bitartean, 2019an 38 milioi euro izan dira; hau da, %17,3 gutxiago. Gainera, taulan ikusten denez, urte guztietan bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

Taula 40. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	45.701.618		105.567.094	
2011	48.801.743	6,8	111.372.260	5,5
2012	54.138.617	10,9	116.647.917	4,7
2013	59.949.583	10,7	125.422.345	7,5
2014	42.984.031	-28,3	81.146.999	-35,3
2015	35.646.621	-17,1	57.882.087	-28,7
2016	34.141.762	-4,2	67.570.153	16,7
2017	33.383.960	-2,2	64.002.666	-5,3
2018	37.130.289	11,2	71.631.590	11,9
2019	37.812.722	1,8	65.576.119	-8,5
2010/2019		-17,3		-37,9

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %37,9 jaitsi dira hamar urte hauetan: 106 milioi eurotik 66 milioi eurora. Hauek ere urtero bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean eta 2017an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

6.1.2. Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2019. urteko 18.119 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 263ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2019. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (218; guztiaren %1,2) egin dituzte erreskateak. Adinean aurrera joan ahala, kopurua handitu egiten da: 26-35 urte bitartekoak %5,0 dira; 36-55 bitartekoak %12,8; 56-65 bitartekoak %21,5; 66-75 bitartekoak %33,6; eta, azkenik, errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %25,9k 75 urte baino gehiago dute.

**Taula 41. Errenta moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera
- 2019**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	218	1,2	564.791	0,5	2.591
26-35	894	5,0	4.188.946	4,1	4.686
36-55	2.294	12,8	7.985.497	7,7	3.481
56-65	3.839	21,5	27.291.588	26,4	7.109
66-75	5.995	33,6	31.426.494	30,4	5.242
>75	4.616	25,9	31.771.805	30,8	6.883
Guztira	17.856	100,00	103.229.121	100,0	5.781

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 55 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %12,3a erreskatatzen dute; 56-65 bitartekoak %26,4; 66-75 bitartekoak %30,4; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %30,8.

Datuak horrela izanda, erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekoa nabarmen handitzen da adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, azken hiru tarteak 5.242 eurotik gorako batez besteko zenbatekoak dituzte.

6.1.3. Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2019an erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, %450,3k 1.000 euro eta 5.000 euro bitarteko errenta jaso du. Ondoren datoz 5.000 eta 10.000 euro bitartean jaso dutenak (%15,4), eta gero 0 eta 500 euro bitartekoak (%13,2). 10.000 euro eta 20.000 euro bitartekoak kopuru osoaren %9,5 dira (1.718 pertsona); beste 1.234 pertsonak (%6,8) 500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dute. Tarte handienetan, berriz, 636 pertsonak (guztien %3,5) 20.000–50.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu du; eta 50.000 euro baino gehiago 233 pertsonak erreskatatu dute.

Taula 42. Errenta moduko erreskateak tarteen arabera – 2019

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	2.397	13,2	450.298	0,4	188
500 - 1.000	1.234	6,8	925.392	0,9	750
1.000 - 5.000	9.106	50,3	22.318.309	21,4	2.451
5.000 - 10.000	2.795	15,4	19.822.103	19,0	7.092
10.000 - 20.000	1.718	9,5	23.511.050	22,6	13.685
20.000 - 50.000	636	3,5	18.502.025	17,8	29.091
>50.000	233	1,3	18.568.491	17,8	79.693
Guztira	18.119	100,00	104.097.668	100,00	5.745

Zenbatekoak eurotan



Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua handiago da:

- 10.000-20.000 tartekoek erreskatatzen dutenak: 24 milioi euro (%22,6).
- 1.000–5.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %21,4 erreskatatzen dute (22 milioi euro).
- 5.000-10.000 tartean daudenak %19,0 (20 milioi euro).
- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (19 milioi euro), zenbateko osoaren %17,8 dira.
- 20.000-50.000 tartekoek 19 milioi euro erreskatatu dituzte (%17,8).
- Beheko bi tarteak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,4, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,9.

6.1.4. Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak


2019an errenta moduan erreskateak egin dituzten 18.119 pertsonetatik 13.808k (%76,2) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 4.311 pertsonak (%23,8) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Nolabait ulertu daiteke, pentsio publikoa eta errenta moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, urtero horrela egingo dutela. Hau da, gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala erabiltzen dutela.

Erreskatatutako 104 milioi eurotik, 74 milioi (%70,8) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 30 milioi euro (%29,2) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.

Batez beste erreskatea 5.334 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 7.061 eurokoa besteentzat.


Grafikoa 13 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2019



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 25.210 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, 2019an guztira 30.544 euro jaso dute, %82,5a pentsio publikoetatik eta beste %17,5 gizarte aurreikuspeneko entitateetatik errenta moduan egindako erreskateetatik.

Erreskatatutako batez besteko zenbatekoa (5.334 euro) pentsio publikoaren batez bestekoaren (25.210 euro) %21,2 da.

Grafikoa 14 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2019



6.2. Kapital moduan egindako erreskateak

2019. urtean kapital moduan 10.506 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %12,6 gutxiagok. Erreskatatutako zenbatekoa jaitsi egin da (-%2,4), eta 185 milioi eurotara iritsi da. Pertsonako batez bestekoa 17.643 euro izan dira.

Bilakaera negatibo eman da urte guztietan, 2011, 2015 eta 2018 izan ezik. Bilakaera negatiboak badu bere arrazoia: 2012rako aldaketa sakonak sartu ziren Gizarte Aurreikuspeneko sistemataraz egindako ekarpen eta kontribuzioengatik PFEZn egiten ziren murrizpenean. Esaterako, gehieneko mugak jaitsi egin ziren, ezabatu egin zen 67 urtetik gorako zergadunen murrizpena... Aldaketa horiek guztiak mugimendu handiak ekarri zituzten 2011ko erreskateetan, eta ondorioz zenbatekoak asko handitu ziren urte horretan (+%36,4).

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egin dituzten pertsona kopurua %28,8 jaitsi da: 14.746tik 10.506ra. 2011, 2015 eta 2018 urteek kenduta (+%10,2, +%9,4 eta +%1,4), beste guztietan jaitsierak eman dira.

Taula 43. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2010	14.746		263.991.201		17.903	
2011	16.253	10,2	360.197.636	36,4	22.162	23,8
2012	14.920	-8,2	223.017.309	-38,1	14.948	-32,6
2013	14.120	-5,4	246.638.361	10,6	17.467	16,9
2014	13.714	-2,9	206.549.120	-16,3	15.061	-13,8
2015	15.000	9,4	225.034.282	8,9	15.002	-0,4
2016	12.431	-17,1	212.180.722	-5,7	17.069	13,8
2017	11.862	-4,6	198.313.718	-6,5	16.718	-2,1
2018	12.024	1,4	189.816.980	-4,3	15.787	-5,6
2019	10.506	-12,6	185.353.076	-2,4	17.643	11,8
2010/2019		-28,8		-29,8		-1,5

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoei dagokionez, %29,8 jaitsi dira 2010. urtetik: 264 milioi eurotik 185 milioi eurora. Mailarik handien 2011. urtean lortu zen: 360 milioi euro.


Pertsonako batez besteko erreskatea %1,5 jaitsi da azken hamar urteetan: 17.903 eurotik 17.643 eurora.

6.2.1. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2019. urteko 10.506 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 104n sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %42,5 emakumezkoak dira, eta beste %57,5 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begirazten badiogu, emakumezkoek guztiaren %37,0 erreskatatzen dute (68 milioi euro), eta gizonezkoek %63,0 (116 milioi euro).

Grafikoa 15 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2019



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2019. urtean 15.402 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 19.458 eurokoa.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 4.873tik 4.426ra igo da (-%9,2). Gizonezkoak, berriz, 9.541etik 5.976ra pasa dira (-%37,4).

Taula 44. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	4.873		9.541	
2011	5.856	20,2	10.079	5,6
2012	5.533	-5,5	9.040	-10,3
2013	5.197	-6,1	8.526	-5,7
2014	5.427	4,4	8.003	-6,1
2015	6.334	16,7	8.408	5,1
2016	5.186	-18,1	7.058	-16,1
2017	4.887	-5,8	6.848	-3,0
2018	5.047	3,3	6.927	1,2
2019	4.426	-12,3	5.976	-13,7
2010/2019		-9,2		-37,4

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak, baina areagotuta. Horrela, 2010ean emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 76 milioi euro izan ziren bitartean, 2019an 68 milioi euro izan dira; hau da, %10,8 gutxiago. 2011. urtean emakumezkoak kapital moduan erreskatatutako zenbatekoa 114 milioi eurotara iritsi zen.

Taula 45. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2010	76.459.403		185.100.687	
2011	113.650.983	48,6	243.672.147	31,6
2012	73.435.474	-35,4	146.978.897	-39,7
2013	78.989.960	7,6	163.928.931	11,5
2014	74.936.206	-5,1	129.739.272	-20,9
2015	83.497.209	11,4	139.719.531	7,7
2016	73.264.430	-12,3	137.768.065	-1,4
2017	69.351.533	-5,3	128.109.863	-7,0
2018	72.677.961	4,8	116.550.078	-9,0
2019	68.169.303	-6,2	116.278.853	-0,2
2010/2019		-10,8		-37,2

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %37,2 jaitsi dira hamar urte hauetan: 185 milioi eurotik 116 milioi eurora. Hauek ere 2011n lortu zuten zenbatekorik altuena: 244 milioi euro.

6.2.2. Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen ziztaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2019. urteko 10.506 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 84ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketara ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2019. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (148; guztiaren %1,4) egin dituzte erreskateak kapital moduan, eta 26-35 bitartekoak 323 dira (%3,1). Erdiko bi tartekak dira pertsona gehien metatzen dituztenak: 36-55 bitartekoak %27,9 eta 56-65 bitartekoak %43,8. Ondoren, adinean aurrera joan ahala gutxitu egiten dira: 66-75 bitartekoak %18,0, eta, azkenik, kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %5,9k 75 urte baino gehiago dute.

Taula 46. Kapital moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera - 2019

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	148	1,4	1.259.960	0,7	8.513
26-35	323	3,1	1.614.020	0,9	4.997
36-55	2.905	27,9	20.546.185	11,1	7.073
56-65	4.560	43,8	104.675.211	56,7	22.955
66-75	1.875	18,0	47.333.203	25,6	25.244
>75	611	5,9	9.243.824	5,0	15.129
Guztira	10.422	100,00	184.672.403	100,0	17.719

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 35 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %1,6a erreskatatzen dute; 36-55 bitartekoak %11,1; 56-65 bitartekoak guztiaren erdia baino gehiago (%56,7); 66-75 bitartekoak %25,6; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %5,0.

Datuak horrela izanda, kapital moduan erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekorik altuena 66-75 urtekoek dute: 25.244 euro.

6.2.3. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2019an kapital moduan erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, laurden batek baino gehiagok (%23,6) 1.000 eta 5.000 euro bitartean jaso ditu. Ondoren datoz 20.000 eta 50.000 euro bitartean jaso dutenak

(%18,6), gero 5.000 – 10.000 euro bitartekoak (%16,6), eta 10.000–20.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu dutenak %15,3 dira.

Taula 47. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera – 2019

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	936	8,9	151.662	0,1	162
500 - 1.000	958	9,1	663.872	0,4	693
1.000 - 5.000	2.480	23,6	6.795.000	3,7	2.740
5.000 - 10.000	1.742	16,6	13.006.777	7,0	7.467
10.000 - 20.000	1.609	15,3	23.403.302	12,6	14.545
20.000 - 50.000	1.957	18,6	64.222.523	34,6	32.817
>50.000	824	7,8	77.109.942	41,6	93.580
Guztira	10.506	100,00	185.353.076	100,00	17.643

Zenbatekoak eurotan

500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dutenak, kopuru osoaren %9,1 dira (958 pertsona); zenbateko gutxien erreskatatu dutenak (500 euro baino gutxiago) beste 936 pertsona dira (%8,9). Tarte handiengan (50.000 euro baino gehiago), berriz, 824 pertsona daude, guztien %7,8.

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua nabarmen handiago da:

- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (77 milioi euro), zenbateko osoaren %41,6 dira.
- 20.000-50.000 tartean daudenak %34,6 (64 milioi euro).
- 10.000–20.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %12,6 erreskatatzen dute (23 milioi euro).
- 5.000-10.000 tartekoak 13 milioi euro erreskatatu dituzte (%7,0).
- 1.000-5.000 tartekoak: 7 milioi euro (%3,7).
- Beheko bi tartekak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,1, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,4.

6.2.4. Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak


2019an kapital moduan erreskateak egin dituzten 10.506 pertsonetatik 6.049k (%57,6) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 4.457 pertsonak (%42,4) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Pentsio publikoa eta kapital moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, ez dute erabiltzen gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala. Baizik eta urte zehatz batean egindako aukeraketa bat da, hurrengoetan errepikatuko ez dena.

Guztira erreskatatutako 185 milioi eurotik, 146 milioi (%78,8) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 39 milioi euro (%21,2) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.


Batez beste erreskatea 24.131 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 8.836 eurokoa besteentzat.

Grafikoa 16 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2019



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 21.106 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, gehiago jasotzen dute gizarte aurreikuspeneko entitateetako erreskateetatik (24.131 euro) pentsio publikoetatik baino.

Grafikoa 17 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2019



6.3. Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak

Gizarte aurreikuspeneko erreskateak egiteko modua berdintsu mantendu da azken hamar urteetan: 2010. urtean erreskate guztien %62,4a errenta moduan egiten zen, eta 2019an, aldiz, %63,3a egiten da, hau da, 0,9 puntu gehiago.

Era berean, kapital moduan egindako erreskateak 14.746 izatetik (%37,6) 10.506 izatera (%36,7) pasa dira 2010etik 2019ra.

Taula 48. Errenta eta kapital moduan egindako erreskate kopuruaren bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	% errenta	% kapital
2010	24.516	4,5	14.746	1,9	39.262	3,5	62,4	37,6
2011	24.722	0,8	16.253	10,2	40.975	4,4	60,3	39,7
2012	26.146	5,8	14.920	-8,2	41.066	0,2	63,7	36,3
2013	27.292	4,4	14.120	-5,4	41.412	0,8	65,9	34,1
2014	21.976	-19,5	13.714	-2,9	35.690	-13,8	61,6	38,4
2015	16.434	-25,2	15.000	9,4	31.434	-11,9	52,3	47,7
2016	15.875	-3,4	12.431	-17,1	28.306	-10,0	56,1	43,9
2017	16.351	3,0	11.862	-4,6	28.213	-0,3	58,0	42,0
2018	17.361	6,2	12.024	1,4	29.385	4,2	59,1	40,9
2019	18.119	4,4	10.506	-12,6	28.625	-2,6	63,3	36,7
2010/2019		-26,1		-28,8		-27,1		



Zenbatekoa begiratuta ere, erreskateak egiteko modua berdintsu mantendu da:

- 2010ean erreskatatutako zenbateko osoaren %36,9a errenta moduan egiten zen, eta beste %63,1a kapital moduan; 418 milioi eurotik 154 milioi euro errenta bezala eta 264 milioi euro kapital moduan.
- 2019an errenta moduak egindako erreskateak 104 milioi euro izan dira eta kapital moduan egindakoak 185 milioi euro; zenbateko osoaren %36,0 eta %64,0, hurrenez hurren.

Hemen joera aldaketa urtez urte nabari da 2012 arte; hor, PFEZren arau aldaketa dela-eta, errenta moduan egindako erreskateak pisua irabazi dute 2011rekin alderatuta. 2013. urtean 2012ko egoera mantentzen da eta ondorengo urteetan errenta moduan egindako erreskateak berriro pisua galtzen dute. Halere, 2009tik aurrera erreskate guztiaren erdia baino gehiago kapital moduan egiten da.

Taula 49. Errenta eta kapital moduan egindako erreskateen zenbatekoen bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	% errenta	% kapital
2010	154.237.984		263.991.201		418.229.185		36,9	63,1
2011	162.990.707	5,7	360.197.636	36,4	523.188.343	25,1	31,2	68,8
2012	177.742.598	9,1	223.017.309	-38,1	400.759.907	-23,4	44,4	55,6
2013	192.988.985	8,6	246.638.361	10,6	439.627.346	9,7	43,9	56,1
2014	127.571.292	-33,9	206.549.120	-16,3	334.120.412	-24,0	38,2	61,8
2015	95.025.688	-25,5	225.034.282	8,9	320.059.970	-4,2	29,7	70,3
2016	103.236.748	8,6	212.180.722	-5,7	315.417.470	-1,5	32,7	67,3
2017	98.285.381	-4,8	198.313.718	-6,5	296.599.099	-6,0	33,1	66,9
2018	109.382.934	11,3	189.816.980	-4,3	299.199.914	0,9	36,6	63,4
2019	104.097.668	-4,8	185.353.076	-2,4	289.450.744	-3,3	36,0	64,0
2010/2019		-32,5		-29,8		-30,8		

Zenbatekoak eurotan